...eta kitto!
950 zkia.
2015-XI-13




# Industriaren iragana

## NARBAIZA FONDOAN

# betirako bizirik

EUKI
ARTEKARITZA
Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99
AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



# BEATRIZ TRAPIELLA, Eibarko Gipuzkoa Policlinicatik

# “Umeen ohiko azterketa medikoak helduenak baino garrantzitsuagoak dira”

***– Zein pediatria-zerbitzu eskaintzen duzue Eibarko Gipuzkoa Poliklinikan?***

Eibarko Gipuzkoa Poliklinikan pediatriako edozein kontsultako zerbitzu guztiak eskaintzen ditugu, hala nola, azterketak, era guztietako kontsultak eta txertoak. Horrez gainera, laborategi- eta erradiologia-zerbitzua ere eskaintzen dugu, eta horrek esan nahi du, zentroan bertan egin ditzakegula proba guztiak. Pazienteak zentroan lan egiten duten espezialista ezberdinengana ere bidera ditzakegu, premia izanez gero.

***– Zer hartu behar dugu kontuan gure seme-alabek osasun ona izan dezaten?***

Bizimodu ordenatua izatea garrantzitsua da, ondo antolatutako ordutegia, denetarik jatea eta pediatrarekin ohiko azterketak egitea, edozein patologia lehenbailehen antzemateko. Arazoei aurre egin ahal izateko adituen gomendioak betetzea ere inportantea da, adibidez, txertoen egutegia zuzen betetzea.

***– Umeen gaixotasun asko kutsatzen dira eskolan bertan?***

Umeek jasaten dituzten gaixotasun asko eskolan zabaltzen dira, eta horrez gain, jausi eta kolpeak ere har ditzakete. Ordu asko ematen dituzte bertan eta normala da, arazoetako asko bertan agertzea. Eta gainera, hotza egiten hasten denean, ikasgeletan bero dezente egiten du, eta jolastokira arropa gutxirekin irteten dira; horregatik dira sasoi honetan ohikoagoak katarroak, infekzio biralak…

***– Zein neurri har ditzakegu guzti horri aurre egiteko?***

Umeari momentuko tenperaturaren araberako arropa jantzi behar diogu, infekzio-prozesuak eraginda sukarra dutenean etxean utziko ditugu eta pediatrarekin harremanetan egon, zintz egiten irakatsiko diegu, paperezko zapiak erabiliz, eta eskuak maiz garbitzera ohi behar ditugu. Jakina, txertoen egutegia zuzen betetzea da egin dezakegun prebentziorik onena.

***– Helduarora ailegatzerakoan azterketa medikoei garrantzi handia ematen diegu. Umeetan ere hain garrantzitsuak dira?***

**www.policlinicagipuzkoa.com**



**Beatriz Trapiella doktorea**

**“Umeetan, diagnosiak, azkarragoak eta eraginkorragoak dira, eta, tratamenduak lehenago ezartzeak umearen eta haren familiaren bizi-kalitatea hobetzen du”**

Umeen ohiko azterketak helduenak baino garrantzitsuagoak dira, oso txikiak direnean batik bat. Pediatrak gertuko jarraipena egitea ezinbestekoa da umearen garapen fisiko, psikiko eta neuromotor egokia ziurtatzeko eta edozein arazo lehenbailehen antzemateko, horrela, tratamenduaren arrakasta ere handitu egingo da-eta.

***– Zein eboluzio izan dute txikienen patologiek?***

Umeen patologiak ez dira denboran horrenbeste aldatu, baina detekzioa, diagnosia eta, kasu batzuetan, tratamendua ere hobetu dira. Gaur egun, laborategi-proba azkarrak ditugu, eta minutu gutxitan diagnosi zuhurrera gertura gaitezke. Lehen, bizpahiru egun behar izaten genituen emaitzak jasotzeko. Diagnosiak azkarragoak eta eraginkorragoak dira, eta jarraipen on batekin arazoen antzematea hobetu egiten da; gainera, tratamenduak lehenago ezartzerakoan, umearen eta haren familiaren bizi-kalitatea ere hobetu egiten da.




Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-
Telefonoa: 943 25 61 00

**POLICLINICA GIPUZKOA**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KORPUSTI.- Korpus Eguna, Gorpuzti Eguna. *"Korpusti egunian elixa barrua txori kantuz beteta izaten zan".*

KORPUTZ-BIDIA.- Andabidea, baserri auzoetan hildakoak eliz atarira eramateko bidea. *"Korputz- bidia eta baita eliz-bidia esaten jako, korputzak eliz-ataira jatxitzeko izentautako bidiari".*

# ASTEAN ESANAK

"Oso gutxi prestatutako jendea ikusi nuen Behobia-Donostian: jantzi egokirik gabe eta euren burua hidratatzen ez zekitenak. Edan beharrean, askok ura buru gainetik botatzen zuten. Maratoi erdia ez da jokoa, ez da zapatila batzuk erostea bakarrik. Jai bat izan beharko luke, baina jai hori probaren ondoren ospatu behar da, ez aurretik. Hainbeste jende animatzen ikustean asko pikatu egiten dira konturatu barik"

(Martin Fiz, atleta-ohia)

"Batez ere 16tik 24 urtera artekoek hala eskatuta, Liverpoolen hiri erdian oinezkoendako lehen erraila zabaldu dute; bertatik azkar joan behar da derrigorrez eta ezin da geratu. Aurretik ere National Geographic-ek egin zuen esperimentu bat, 2014an, espaloiko zati bat mugikorretik hitz egiten zihoazenendako gordeta. Gehienek paso egin zioten ekimenari"

(Kate Lyons, kazetaria)

"Nik tekla bat sakatuta Islandian BRCA2 mutazio genetikoa daramaten guztiak lokalizatu ditzaket. Hori jakinda, eurei esatea gustatuko litzaidake. Eta, neurri prebentiboak hartuz gero, bularreko edo prostatako minbizia izango dutenak hamabi urte gehiago bizi ahal izango dira. Lehen aldiz dugu islandiarren liburu genetikoa gure esku, eta ez diegu jakinaren gainean jarriko? Norbait itsasora jausten bada, ez dugu ezer egingo berak eskatu arte? Ez du zentzurik"

(Kari Stefansson, genetista)

"San Balentin egunaren bueltan gero eta gizonezko gehiagok erosten dute lentzeria. Ia beti gorri koloreko jeneroa hartzen dute, gainera; baina handik egun gutxira oparia jaso dutenak bueltatzen dira, beltz koloreko zerbaitekin aldatzeko"

(Piedad Garcia, Alma Bloom lentzeria)

"Urdaibakoek Euskal Herri erdiarekin akabatzeko tamainako materiala ekarri zuten eta euren kontra zantzuak besterik ez daudela diote. Bonba atomikoa eskuan eta bitrinan erakusteko?"

(Jose Luis Korta, arraun prestatzailea)

# eskutitzak

### GAZTAÑERRE AEK-REKIN OSPATZEN

Dakizuenez azaroaren 16an Gaztaiñerre eguna ospatuko dugu. Urtero bezala, Paloma tabernan elkartuko gara arratsaldeko 19:00etan. Bertan hildakoen omenezko ondra-jana egingo dugu. Ondrajanaren ostean, kalejira egingo dugu Musika Eskolako trikitilari taldearekin eta Eibarko Kantuzaleak korukoekin batera. Palomatik Beleko eta Hirurok tabernetarai joango gara. Euskal kantak eta Gaztaiñerre egunerako propio jarritako koplak kantatuko ditugu. Denok zaudete gonbidatuta Gaztaiñerre eguna gurakin ospatzera. Anima zaitezte!

**Eibarko AEK-ko ikasleak**




**KIA NAIA CAR-en 25 sarrera zozketaren emaitza**

Ignacio Arizmendiarrieta
Amaia Berrueta
Cristina Carballo
Satxa Ceberio
Oihana Chico
Mari Carmen Diaz
Mari Luz de Diego
Maitane Gaminde
Asier Garcia
Elena Garcia
Jose Luis Garma
Letizia Gomez
Alfredo Guerra
Arrate Irleta
Jaione Leibar
Minerva Lopez
Gaizka Martin
Mª Angeles Martin
Jose Mochales
Josu Olañeta
Ana Maria Ormaechea
Rosa Mª Quintana
Iñaki Sanchez
Nekane Telleria
Enrique Vicente

Irabazleek azaroaren 14tik 20ra arte jaso ahal izango dituzte sarrerok atzo inauguratu zen KIA NAIA CAR kontzesionarioan (Apalategi).

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus / publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.
**ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Silbia Hernandez
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** ***8.050 ale.*** **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

EIBARKO UDALA

Gipuzkoa BERRIA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak* DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA



# Indarkerixa matxistaren kontra

**Eguazten illuntzian indarkerixa matxistaren kontrako konzentraziñua egin zan Untzagan,** herriko andrazkuen mugimenduak deittuta. Aurten indarkerixa matxistaren ondorioz 89 andra hil dira Espaiñian eta aste honetan, 48 orduko tartian bost hilketa gertatu dirala salatu dabe. Azaruaren 25a indarkerixa matxistaren kontrako eguna dala eta, datozen egunotarako mobilizaziño eta ekitaldi berezixak antolatu dira. Datorren astian, bestiak beste, martitzenian 19:00-etan "Beldurrak gurekin jai" hitzaldixa eskinduko dabe …eta kitto! Euskara Elkartean. Eguaztenian, barriz, 18:00etatik 20:00etara XII. Berdintasunareko gunea hartuko dau Portaleak, Mujeres al Cuadrado alkartiaren eskutik (sarrera libria izango da, inskripziño barik).

**Woman In Black**

Eguenerako antolatutakua gurian behintzat barrixa izango da: 18:00etan "Woman In Black" (baltzez jantzittako andrak) izeneko performancea egingo da Untzagan (jubilauen aldian) eta, horretarako, herriko eta inguruko andra guztiak parte hartzera animau nahi dittue *"hau danon burrukia dalako"*. Parte hartu nahi dabeneri baltzez jantzitta juatia eskatzen detse, *"eta esandakuan lurrian etzin biharko dira, lerro zuzena osatzen, bata bestiaren aldamenian, buru guztiak alde berera begira, geldirik, begixak itxitta eta ixillik (hilda moduan). Pare bat miñutu edo pasatzian, aurretik aukeratutako batenbatek klarion lodi batekin bakotxaren inguruan siluetia marraztuko dau eta, amaitzen dabenian, pertsona hori jaiki eta aldamenian etzinda dakan lehelenguaren sorbalda ikutuko dau, hori altxatzeko. Horrela, gauza bera errepikatzen juango gara, danak zutik bakotxaren siluetiaren atzian egon arte. Orduan, miñutu batzuk ixillik pasau eta, illarak apurtuta, ekintza amaittu egingo da"*.




# Koskor, Ekipintxoko onena

**Jendetza batu eban aurreko zapatuan Untzagan egindako Ekipintxo lehiaketiak.** Gerturatu ziranak ez eben galdu nahi izan lehiaketaren harira preparau zittuen pintxo berezi eta ederrak jateko aukeria eta lehiaketia Koskor tabernakuen pintxuak irabazi eban.



*Arrakasta haundixaeuki eban zapatu eguerdiko ekitaldixak.* LEIRE

# Jubilauen moda desfilia

**Untzagako jubilauak, El Corte Inglesaren laguntasunarekin moda desfilia egingo dabe** aurten be. Animau diran bazkidiak, andrazkuak eta gizonezkuak, erropa ezberdiñak jantzi eta desfilia ikustera juandakueri erakutsiko detsez gaur, 18:00etatik aurrera. Gaiñera, atsedenaldixan Voces y Cuerdas taldekuak hainbat kantu eskinduko dittue, iñor ez aspertzeko..

# Enpanadak eta gaztaiñak alkarrekin

**Urkizuko parkiak Magosto eta Enpanada jaixa hartu eban aurreko asteburuan,** zapatuan eta domekan. Eguraldixa lagun, gerturatu ziran guztiak edarto pasau eben As Burgas Galiziako Etxiaren ekimenez urtero antolatzen dan jaixan.



*Enpanada jaixan aurkeztutako bi epaimahaixak bere lana hasi aurretik.* LEIRE



# 1944xan jaixotakuak

**Aurreko asteburuan alkarrekin bazkaltzeko alkartu ziran** erretratuan ikusten dittuzuenak, 1944xan jaixotakuak eta eguna edarto pasau eben, jai giruan eta kontu kontari.

## Ertzaintzaren landa-patrulla



**Urrixaren azken egunetan hasi zan biharrian Eibarko ertzain-etxiaren landa-patruilla.** Beste eskualde batzuetan egindakuaren bidetik, Debabarrenian be patruillatzen hasitta dagoz, *"mendi inguruan bizi diranen premiñeri ahalik eta onduen erantzuteko asmuarekin"*. Asmo nagusiña herrixetatik aldenduta bizi direneri zerbitzua gerturatzia dala diñue: *"Inguru hórretxek berezko arazuak izaten dittue eta, horrelakuak konpontzeko, basarrixetara eta bakartuta daguazen etxietara bisitan juango gara, han bizi diranekin berba egitteko"*. Gaiñera, zerbitzua ahalik eta eraginkorragua izateko Gipuzkoako eta Bizkaiko diputaziñuetako basozaiñekin alkarlanian jardungo dabe.

## Jose Luis Oliva goguan

**Urrixaren 19xan bihotzekuak jota hil zan Jose Luis Oliva Gallastegi iheslari politiko eibartarra gogoratzeko ekitaldixa** egin zan martitzenian Txaltxa Zelaixan. Eibarko ezker abertzaliak aditzera emon dabenez, *"1984ko uztaillian Donibane Lohizuneko Consolation ostatuko atentatuan GALek zaurituta, oindiok be horren ondorixuak jasaten zittuan. Bera goguan, aurreko domekan Kalamuako lautadan errautsak haizeratu genduazen eta martitzenian Txaltxa Zelaixan merezittako agurra eskindu gentsan"*.




## autuan

### SANANDRESAK GASTEIZEN

Gasteizen bizi diran eibartarrak azaruaren 26xan alkarrekin afalduko dabe San Andres ospatzeko. Conde de Alava jatetxian izango da afarixa, 21:30xetan (aurretik, 20:00etan Txiki tabernan batuko dira). Izena emoteko eibargasteiz@gmail.com helbidera, 659168878 telefonora whatsapp-a edo Facebook-eko taldera idatzi leike.



### GABONETAKO ARGIXAK

Aste honetan hasi dira herriko kaliak Gabonetan girotzeko argixak ipintzen. Urtero lez, gastuaren parte bat herriko dendarixak eta tabernarixak pagauko dabe eta beste partia udalak.






**asteko**

**1,000**

**datua**

-tik gora lagunek erosi dittue 40 eurotan 50 euro gastatzeko EMGI-ren bonuak eta 6 egunetan agortu dira danak. Halanda be, 18ra arte Eibarko Merkataritza Gune Irekiaren Facebooken zozketatzen dittuenetako bat lortu leike.

## Kulturanitz jaialdixa bixar Untzagan



**Bixar 14:00xetatik aurrera Kulturanitz Jaialdixa egingo da Untzagan, hillebete osuan udalak eta Eibar Zabalik-ek antolatuta** inmigraziñuari eta kulturaniztasunari eskindutako programaziñuaren barruan. Bestiak beste jatekua, inmigraziñuaren mapia, dantzak eta musikia osatuko dabe arratsalde osua beteko daben jaixa: 15:00etan Marokoko perkusiño taillarra eskinduko dabe, 16:00etan Boliviako "Pasacalle La Morenada" ikusteko aukeria egongo da eta 18:00etan Kubako Codigo Habana taldiaren musika emanaldixa hasiko da.

Bixarko jaialdixaz gain, bestelako jarduerak osatzen dabe hillebete guztirako programia: eguaztenian 18:00etan "La integración de las segundas generaciones" gaixaren inguruan jarduteko aukeria egongo da Estaziño kalian daguan Al Toyor alkartian; eguenian, barriz, "Asilo, refugio y crisis en Europa" izenburukua eskinduko dau SOS Arrazakeriako Agustin Unzurrunzagak (18:00etan Portalean); eta eguenian Xabier Aierdi soziologuak "Inmigrazioaren pertzepzioa Euskal Herrian" gaixari helduko detsa (18:00etan Portalean). Ipuin kontalari saiuak eta Eibarko etorkiñekin batera egindako bideuaren proiekziñuak biribilduko dabe egitaraua.

## Trafikua beheruntz juango da Legarren

**Legarreko trafikuaren norantza erabagitzeko inkesta egin eban udalak** eta, jasotako erantzuneri jarraittuta, trafikuak beheranzko norantzan juatia erabagi dabe. Buzoietan 607 galdetegi banatu eta gero, hórretako 228 erantzun eta entregau zittuen auzokuak (%37'5) eta gehixenak (%72'8k) automobillak beheranzko norantzan juatia aukeratu dabe. Beraz, saihesbidia erabilli nahi daben gidarixak Itzioko sarbidetik juan biharko dira. Automobillak Arrate Bidetik behera, Legarrera jaitsiko dira eta Legarren oin arteko norantzari eutsiko detse, aldaketa barik. Erdialdetik sartu nahi dabenak Legarre Gainera oin arteko bidetik, betiko martxan sartuko dira, baiña Legarre eta Arrate Bidera juateko aurrerantzian Legarre Gainetik sartu biharko dira. Saihesbidetik Donostiarako norantzan juateko zaharren egoitza bixen artian urteeria preparauko dabe, bariantерako zuzeneko sarbidiarekin. Eta Bilboruntz juateko Torrekuatik, biribilgune barrittik urtengo dira automobillak.



*Auzokuak entregatutako inkestetan esandakuari jarraittu detsa udalak trafikuaren norantza erabagitzeko orduan.*



## Alderdi guztiak Oroimenaren Egunian

**Alkarrataratzia egin zan martitzen eguardixan Untzagan Oroimenaren Egunaren harira** eta, ekitaldixarekin bat egin eben herrittarrekin batera, Eibarko udalian daguazen alderdi guztietako ordezkarixak be hartu eben parte.



# Bartolome Egurrola Azpiazu

*(1926-V-17 / 2012-XI-14)*

**3. URTEURRENA**

*Sekula ez zaitugu ahaztuko*

*(Etxekuak)*





BIXENTE MARTINEZ *MUSIKARIA*

*Bixente Martinez eibartarrak ibilbide luzea egin du musika munduan. Oskorriren partaidea 1973tik, bi kontzertu geratzen zaizkio taldeari agur esateko. Hiru Trukun Ruper Ordorika eta Joseba Tapia izan ditu lagun, zinerako hainbat musika konposatu ditu, Bertso & Jazz proiektua gidatu zuen eta, Hasier Oleaga eta Amaiur Cajaraville lagun dituela, Igelaren Bandaren hirugarren diskoa kaleratu berri dute, "Debalde festa" izenekoa. Aukera aproposa gitarra eta mandolina jotzailearekin izateko.*

# "Arriagako Oskorriren agurreko CDa eta DVDa izango dira kalean"

***- Igelaren Bandaren hirugarren diskoa aurkeztu berri duzue. Zuen jarraitzaileek zer ikusiko dute ezberdina lan horretan?***

Lan monografikoa da, bertso-doinuetan oinarritzen dena. Lana modu librean antolatu dugu, baina beti ere gaur egungo bertsokerari jarraituta.

***- Kalean dauden hamahiru doinu bildu dituzue, sasoi ezberdinetako bertso doinuak, tradizionalak eta modernoagoak…***

Iparraldeko kantu zaharrak daude, Amurizaren doinu bat, Kaxianorena, Oskorri, Imanol, Imuntzo… Bi kantu azpimarratuko nituzke: moldatu dugun Oskorrirena zen *Ezin ahaztu* izenekoa eta *Ez egin lorik basoan,* Maialen Lujanbiori entzundako doinuarekin.

***- Aurretik esan izan duzu musika zaharra maitasunez tratatu nahi izaten duzuela, baina errespeturik gabe. Disko berri honetan ere inprobisazioa izango da nagusi?***

Gure lanaren estiloa da momentuan bertan sortzen joatea; egunaren arabera, alde batera edo bestera jotzea. Une horretan barruan duzuna ateratzea bilatzen dugu, askatasunez. Askotan esan dudan eran, non hasten garen dakigun moduan ezin da gauza bera esan non amaituko dugun esaterakoan. Ez dakigu abesti bera modu berean errepikatzen, dena egiten dugu geure.

***- Non izango dituzue "Debalde festa"-ren hurrengo saioak?***

Diskoa hilaren 26an aurkeztuko dugu Hernanin. Durangoko Azokan joko dugu gero, Arotzenean. Eta urtarrilaren 10ean lotuta dugu Lugaritzen jotzea. Donostiara bueltatuko gara uda aldean, bertako Jazzaldian.

***- Oskorriri agur esateko azken egunetan sartuta zaudete. Iragarri zenuten zortzi kontzertuetatik zenbat geratzen zaizue?***

Maulen joko dugu zapatu honetan. Eta azken jaialdia, gure benetako agurrarena, Bilbon izango da, Arriaga antzokian, hurrengo asteburuan, hilaren 22an.

***- Zelan erantzun du jendeak kontzertu guzti horietan? Sarrera guztiak salduta ibili zarete jotzen, ezta?***

Jai haundi bat bailitzan gabiltza bizitzen. Gure helburua ere hori izan zen: agur baikorra eskaintzea jendeari, gureganako izan duen maitasun hori eskertzea. Horregatik, orain arte egindako kontzertu guztietan giro alaia eta emotiboa bizi izan dugu.

***- Arriagakoan zeozer bereziagoa egiteko asmorik baduzue?***

Hasieran ez genuen halakorik aurreikusi, baina badirudi azken unean ekitaldi hori grabatzeko interesa sortu dela. Hori dela-eta, ekitaldiaren CDa eta DVDa irtengo da. Eta, bai, berezia izango delakoan gaude.

***- Oskorriren ibilbidea aztertzeko gorputzaldirik ez duzula esan duzunean, perspektibarekin hitz egiteko une egokia ez dela… Beherakadak hartu zaitu?***

Ez dago halakorik, perspektiba faltaren inguruan dihardut. Historia egiteko aukera eta denbora etorriko da geroago ere. Orain nahiago dut momentuaz gozatzea… eta gero gerokoak.

## Igelaren Bandarekin "Debalde festa" hirugarren diskoa atera berri du

***- Eta Arriagakoen ondoren, zer?***

Musika talde izatetik afari talde bat izatera pasako gara. Oskorri ez delako desegin, lagunak izaten jarraitzen dugulako.

***- Zer proiektu dituzu esku artean epe motzera begira? Eta luzeagora?***

Orain, batez ere, oso gustora dihardugu "Debalde festarekin". Esku artean zeozer polita dugula ikusi dugu eta horrekin gabiltza buru-belarri, lana serio hartuta. Epe luzeagora begira, baditut txorakeria batzuk buruan, baina momentuz hor daude.

***- Eibarren jotzeko asmorik?***

Bai, gure asmoen artean dago. Aspaldi ez dut hor jo eta gustatuko litzaidake, ea zeozer lotzen dugun. Bestalde, noizean behin hor izaten naiz, familia, lagunak eta kuadrila bertan ditudalako. …eta kitto! ere izaten dut eskura, horko berri izateko.

***- Zelan ikusten duzu gaur egun euskal musikak bizi duen unea?***

Eskaintza handia eta zabala da, estilo askoko musikariak hartzen dituena. Izen haundiko jende berririk ez badago ere, hainbat tribu nabaritzen dira… Despiste moduko egoera bizitzen ari garela esango nuke, horrela dida batean esanda, zuk galdera bota eta nik asko hausnartu barik esanda. Gaiak merezi du luze eta sakonago jardutea.

*Ego Ibarra batzordiak argittara emondako "Eibar Kantuz-kantu" liburuak jasotako kantuak ondo baiño hobeto kontatzen dau sasoi batian Eibarko taillarretatik urtetzen ziran produktuen bariedadia zelako haundixa zan. Anbrosio Atxa "Itxasoren" letria eta Andres Garate "Beltxiren" musikia dakan abestixak holan diño:* ***"Egiten da pistola / eskopeta ariña / fundizioko bihar / grabauan ere, gauza fiña / Eibarko semiak / Ein zazue ahalegiña / ikusi deixen umek / gurasuak egiña / Eibar zer dezuten / da gauza jakiña / Gipuzkoa barruko / herririk haundiña / Egiten da bizikleta / josteko makiña / laister egingo degu / automobilla".*** *Eta batenbatek abestixak diñuanarekin dudarik badaka, oin dala gitxi udalak dohaitzan jaso daben Carlos Narbaiza fondua osatzen dabeneri begiratu baiño ez daka letriak egixa biribilla esaten dabela argi ikusteko.*



Carlos Narbaizaren seme-alabak Udalari modu formalian emon detse bilduma dohaitzan.

# Herriko taillarretatik urtendakuak herrira bueltan

Aitta zanaren bildumia, Eibarko taillarretan egindako 2.000 pieza baiño gehixagok osatzen daben fondo edo kolekziñua dohaitzan hartzia onartu eta eskertu eben udalian iraillaren 28xan egindako bilkuran, seme-alabak herrixari emotia erabagi eta gero. Pieza guztiak sailkatu, kudeatu eta erakustiaren arduria, barriz, Eibarko Armagintzaren Museuak hartu dau bere gain.

Holan bete dabe Jose Luis, Aitor eta Virjinia Narbaizak aittaren betiko asmua izandakua: *"Azken batian, aittak taillarrik taillar batzen juan zan gauza gehixenak emondakuak dira, baten batzuk berak erosi bazittuan be. Baiña, edozelan be, herrixak emondakuak diranez aittak beti zekan buruan atzera be herrixari bueltatzia, berak jaso eta gordetzen ibilli arren egunen batian bildutako guztiak Eibarren nunbaitten erakustia nahi eban, oindiok existitzen ez zan museuan danak ikusteko moduan egotia zan bere asmua".*



Carlos Narbaiza Durangon jaixo zan 1927xan eta gerriak oindiok umia zala harrapau eban. Beste ume batzurekin batera, Frantziara eruan eben gerratik aldentziarren eta, handik bueltatzian, 13 urterekin biharrian hasi zan. Ezagutu ebenak *"bihargin fiña eta beti ikasteko prest eguan gizona"* zala diñue, eta seme-alabak kontautakuak entzun eta gero, derrigorrez halakua izan zala besterik ezin leike pentsau.

Tornulari ona, 50. hamarkadan bere kontura ekin zetsan biharrari Eibarren, Muzategi kalian taillar txiki bat sortuta. Denporiakin NAI izena hartuko eban taillarra Errekatxura aldatu eban geruago, handik Legarrera eta, azkenian, Ibur Errekara eruan eban. Orduan sasoian Eibarko beste tailla-

Isasi, 31
943 207 737
Etorri! Zure etxian egongo zara!!
Egunero 06.00-22.00
Astelehenetik ostegunera
PINTXO-POTEA!
KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTONDO

San Andres Gozotegia
• tartak
• enkarguak etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

rretan pasatzen zan moduan, horretan be patiñak eta monopatiñak ez eze automobillendako piezak eta beste gauza batzuk egitten zittuen. Semiak gogoratzen daben moduan, *"Eibarren ikusi neban lehelengo monopatiña han egindakua izan zan"*.

**Autodidakta eta ekintzaillia**

Izan be, Carlos buruari buelta bat baiño gehixago eragiteko gizona izan zan, *"gaur egunian autodidakta esaten detsagun hórretakua eta, horrekin batera, iritzi aurrerakoiko gizona be bazan. Gogoratzen dot gure ama, amama edo ni plazara erosketak egittera juateko karro modukua zelan asmatu eban eta guri probatzeko emon zeskun, baiña holakuetan sarrittan pasatzen dan moduan guk ez genduan horrekin juan nahi eta han nunbaitten ahaztuta geratuko zan asmakizuna. Ez dakigu nundik etarako zittuan holako ideiak, baiña egixa da holakuetarako griña eta zaletasuna betidanik zekala, 'Mecanica Americana' izeneko rebistia eukitzen eban eta igual holakueri begira edo asmatuko zittuan gauza batzuk... Gerra ostian denetarik bihar zan eta, horregaittik, taillarretan denetarik egitten eben. Ekintzaille, enprendizaje eta holakuak ez dira gauza modernuak edo barrixak, hórretxek danak aspaldi asmatu zittuen Eibarko taillarretan"*.

Gogoratzen dabenez, *"aittari ez jakon gustatzen gauzak alperrik botata ikustia, txatarrerixa eta holakuetan zer aprobetxau leikian begiratzen eta ibiltzen zan"*. Beste askoren moduan, bere afiziñuari denpora gehixago eskintzeko aukeria jubilaziñuarekin batera, 1987xan aillegau jakon: *"Aurretik be Eibarko taillarretan egindako gauzak batzen hasitta eguan. Izan be, herriko industriaren rekonbersiñuak eragin-da, taillar asko itxi ziran eta beste asko kanpora eruan zittuen eta horrekin ardu-ratuta eguan, Eibarren egindako horrenbeste gauza betirako desagertuko ete ziran beldur zan eta hortik gauzak batu eta gordetzen hasteko kontua. Horretan lagundu zetsen lagun bi ezin geinkez ahaztu: Eustakio anaixak sarrittan laguntzen zetsan pieza billa eta Ego Ibarrako Bego Azpirik be, lagundu ez eze asko xaxatzen eban, horretan segitzeko animatzen ibiltzen zan beti"*.



*Aitta hil eta gero, piezen inbentarixua egitten hasi ziran.*

**100 taillarretik gora**

Eta horretan jardun eban 1997xan hil zan egunera arte. Afiziñuak bultzatuta egin eban biharraren emaitza 2.000 piezak baiño gehixagok osatzen daben bilduma paregabia da: pieza haundixak eta txikixak, era guztietakuak batzen dittuan kolekziñua: goldeak, antziñako labadorak, aulki berezixak, giltzak, bizikletak, amuak, damaskinauak, konpresoreak, laratzak, guraizeak, telebisiñuak... dan-danak Eibarren egindakuak eta XX. mendian gure herriko 100 enpresa baiño gehixagok (Super-Ego, Abelux, Alfa, Laster, GAC, Lomiño, El Casco, ABC...) sortutakuak.

Famelixak diñuanez, *"piezak udalaren lokaletan egon dira gordeta lehenago be, baiña modu ofizialian emotia nahi genduan, holan herrixaren esku lagatzeko eta egunen batian Museuan erakusteko. Izan be, bildumiak dakan balixorik haundiña hori da, Eibarren egin diran gauza guztiak alkarrekin erakustia, jendiak Eibarren zenbat gauza egin diran jakin deixan eta herrixaren aberastasuna nundik datorren ikusteko. Eibar gaur egunian be zeozer bada, iraganian taillarretatik urtendako hórreri esker da"*.

Piezetako batzuk honezkero ikusgai ipiñi dittue Portaleko 5. pisuko museuan eta aurretik be bildumako hainbat gauza ikusteko aukeria egon zan 1996. urtian, Eibar sortu zala 650 urte betetzen zirala eta, horren inguruan egindako erakusketa berezixan, Portaleko erakusketa aretuaren goiko aldian. Eta bildumako gauza guztiak preparatzen eta sailkatzen juan ahala, gero eta gehixago ipiñiko dittue Museuan, holan piezarik pieza gure iragan industrialaren erretratua osatuta geratu arte.

Zure enpresa erakusteko leku aparta
GIDA KOMERTZIALA 2016
Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da
...eta kitto! Astekaria
publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76
www.etakitto.eus

DEBA BAILARAKO INDUSTRIALDEA
Bulegoen salmenta eta alokairua Azitaingo Poligonoan
Ibaitarte Poligonoa, 5 - 1.
20870 ELGOIBAR
Tfnoa: 943 74 11 26
debabailarako@industrialdea.spri.es

# TEEN AJEAK

**Mikel Solas 25 urteko eibartarrak patroigintza industrialeko eta moda diseinuko goi mailako zikloa ikasi zuen Donostian eta bere ikasketak osatzeko, Bilbora joan zen moda akademia batean jardutera. Dior eta Raf Simons dira besteak beste, moda munduan gogoko dituen diseinatzaileak. Bere lanak edo iritziak facebook-eko "Solas" orrialdean aurki daitezke.**



Mikel Solas (DISEINATZAILEA)

## "Moda diseinua sustatzeko, ekintzaileei erraztasunak eman behar zaizkie"

***– Noiztik duzu modarekiko zaletasuna?***

Betidanik; batez ere, batxilergoan erabaki nuen patroigintza industrialeko eta moda diseinuko goi mailako zikloa egitea. Euskal Herrian ez dago gauza askorik zaletasun hau dugunontzat. Gradu gehienak unibertsitate edo zentro pribatuetan ematen dira eta oso garestiak dira.

***– Zer ikasten da goi mailako ziklo horretan?***

Laburbilduz, zirriborro bat marraztetik, erropa bere osotasunean egiterainoko prozesua. Ekonomia ere ikasten da, norberaren enpresaren kudeaketarako, historia, ... Baina ez nuen josten ikasi eta, beraz, ikasketak osatzeko Bilboko moda akademia batera joan nintzen.

***– Moda munduarekin lotuta lan egiteko aukera izan duzu?***

ETBn egon naiz praktiketan estilista moduan, "Vaya Semanita" programan esaterako. Baina inoiz ez diot laga nire erropa propioak egiteari. Orain moda mundutik urrun dagoen lanpostua dut, baina dirua beste leku batetik lortu behar da josteko makinak, oihalak eta norberaren kreazioak egiteko. Hemen ia ez dago diseinuarekin lotutako lanik.

***– Zergatik uste duzu dela hain zaila egoera hemen?***

Estatu mailan ez da laguntzarik bertako moda ezagutzera emateko eta ekintzaileei ere oso gutxi laguntzen zaie. Ia ezinezkoa da une honetan ikasle batek bere akademia zabaltzea. Diru asko behar da alokairua ordaintzeko eta materiala edo lan-tresnak erosteko. Moda diseinua sustatzeko ekintzaileei laguntza eta erraztasunak eman behar zaizkie. Inoiz pentsatu dut atzerrira joatea, baina Euskal Herriko moda sustatzearen aldekoa naiz.

***– Euskal Herrian potentziala dagoela uste duzu beraz...***

Dudarik gabe. Eta baita Eibarren ere. Gure herriko potentziala agerian laga dute Etxeberria edo Ion Fiz bezalako diseinatzaileek eta, gainera, une honetan moda ikasle asko daude.

***– Nolakoak dira zure lanak?***

Orain arte nahiko estilo klasikoa duten jantziak egin ditut adin ertaineko emakumeentzat. Zeta da nire oihalik gogokoena eta, batez ere, japoniar estanpatukoa. Orain, adibidez, halako zeta erabilita, soineko bat egiten ari naiz eta, erropaz gain, poltsak ere egin izan ditut udan.

***– Zer proiektu duzu etorkizunerako?***

Eibarren akademia bat zabaltzea gustatuko litzaidake, josten irakastea, nire lanak sortzeko eta egiteko tailer bat izatea... Hemen inguruan ez dago horrelako ezer; hiriburuetaraino joan behar da eta gastu handia da. Gainera, Eibarko jendea ondo jantzita joateaz kezkatzen da eta, alde horretatik, arrakasta izan dezakeela uste dut.



**JOSE LUIS ARAKISTAIN IRIONDO**

***2015eko azaroaren 9an hil zen, 83 urterekin***

*"Gogorra izango da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko, baina bizi geran artean ez zaitugu, ez, ahaztuko"* ETXEKOAK

SENIDEEN IZENEAN, **ESKERRIK ASKO** hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi



# Urko Taldea peñak Reala-Eibar girotuko du

**Aurten osatu dute Urko Taldea peña. Dozena bat lagun besterik ez dira, Donostian bizi diren eibartarrak ia denak.** Tartean dago Ainhoa Ormaetxea, Eibarko eta Realeko entrenatzailea izandakoaren alaba. Badira bi Eibarren bizi direnak: Maite Rodriguez da euretako bat eta berak eman dizkigu Reala-Eibar partiduaren inguruan prestatutakoaren berri.

Ez da makala hain lagun gutxirekin antolatu dutena abenduaren 6rako; kontuan izanda, gainera, era horretako prestakizunetan bataio eguna ere izango dutela.. Ia egun osorako egitaraua, partidu-aurrea eta geroa girotzeko ahalegin paregabean, eta Donostiara joateko modu berezian gainera: orain dela 29 urte La Bombonerak prestatu zuen bidetik. *"Orduko hartan jardun zutenei omenaldi modukoa eskaini nahi izan diegu, bidaia hura askok oraindik gogoan dutelako. Gainera, peña hura sortu zutenei -Etxaluze, Roberto Bergara eta Potxo Romarate- badugu detailetxo bat egiteko asmoa".*




EIBAR FT-ko PEÑA OFIZIALAK

**2001:** Eskozia La Brava (Eibar)
**2007:** Manix-Mandiola (Eibar)
**2010:** Bitter (Madrid)
**2013:** Jon Errasti (Eibar)
**2015:** Gatzato (Eibar), Urko Taldea (Donostia), EibarUSA (Kalifornia), SD Eibar-Cyprus (Txipre), SD Eibar-Eibarkosta (Mutriku), Penya Eibarresa de Llevant (Valentzia), Peña Gaditano-Eibarresa De Euskadi Kadi (Cadiz), Peña Polscy Fani SD Eibar (Polonia), Peña Adn Mexico (Guadalajara), Peña Eibar Israel (Israel), Penya Giro Ona (Sant Antoni de Calonge - Girona) eta Peña Baiona Football Club (Baiona - Iparralde)

### Bonboneraren bidetik

1986an mila bat lagun joan ziren Eibartik trenean Donostiaraino, orduko hartan 2. B mailako Sanse eta Eibarren arteko partidua ikustera. Oraingoan EuskoTren-ekin jarri dira harremanetan Urko Taldekoak eta 400 lagunendako trena alokatu dute abenduaren 6rako: *"Lau bagoi izango ditu eta txartelak 5 eurotan daude salgai Premier Bidaietan, Esteban ileapaindegian (Juan Gisasolan) eta Zubi-Gain eta O'Jays kafetegietan"* dio Maite Rodriguezek. Tren horretako txartelak agortzen badira, *"bigarren tren bat antolatuko genuke. Lehenengoa 08.32etan irtengo da eta arratsaldeko 18.27an bueltatu. Bigarren bat antolatzen badugu, hori 08.49an irtengo da, ordubete lehenago bueltatzeko (17.30ean)"*. Behin han, Donostian, kalejira hasiko dute Ustekabe txarangarekin eta hainbat Lambretta-ekin: *"Easo plazatik gure egoitza den Iritzi tabernara -San Martin, 43- joko dugu, han poteoa egiteko eta pintxo batzuk jateko"*. Eibar FT-ko kamisetekin jantzita dagoen Iritzitik batzuk Anoetara joango dira, eguerdiko 12.00-etan hasiko den partidua ikustera, eta besteek kalejiran jarraituko dute La Perlaraino. *"Han bi terraza izango ditugu guretako, banderez apainduta, eta partidua ikusi ahal izango da pantailan handian. Iritzin ere beste pantaila bat egongo da"*, diosku Maitek. Paella, txistorra eta sagardoarekin lunch-a prestatuko dute, doan, jakina.

Aurrekoez gain, partiduaren ondoren aukera izango da -bai Iritzin eta bai La Perlan- menu berezia jateko, 6 eurotan. Eta badira aukera gehiago ere: *"Badiari begirako photo-call lehiaketa antolatu dugu eta argazki onenak masajea eta afaria irabaziko du"*. Egun horretarako badago beste asmo berezi bat ere, horretarako eguraldiak lagundu behar duen arren: Eskozia La Bravakoek Santa Klara uhartera joan eta faroan Eibar FT-ren bandera ainguratzeko asmoa dute.

Egun berezia, beraz, abenduaren 6rako, domekarako, Urko Taldekoek prestatu dutena. Orain dela 29 urte binako berdinketarekin amaitu zen partidua eta une honetan ez dute emaitza kaskarragorik espero Eibar FTko peñek, taldearekin baikor. Ez doaz Donostia konkistatzera ez, baina bai giro bereziaz janztera. Eta, ahal bada, irabaztera!

## Teresita Entrena Aginaga *(2015-XI-8)*



*Esku zaurituak dira, negar egiten dutenak.*
*Esku dantzariak, lotuak eta askeak.*
*Borroka eta otoitz eginez,*
*zain dauden esku emankorrak.*
*Zatoz bizirik, esna!*

"SON LES MANS DE DONA! – EMAKUME ESKUAK DIRA"

*Zure illoben partez*



# Gremioen Gida

## ANTENAK


BALATZ C.B.
instalakuntzak eta konponketak
antenak - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Antena instalazioak
TDT / Satelitea
Informatika Zerbitzua
Sareak /Antibirusa
Sistema Operatiboa
Miguel Angel Garcia
Mugikorra: 609 250 858
garciagmiguel@movistar.es

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK


## AROTZAK


EDER ateak
ATEAK, HORMA-ARMAIRUAK, TARIMAK...
BURDINDEGIKO ARTIKULUAK SALGAI – GILTZEN KOPIAK
EBANISTERIA – ERAKUSKETA
iraner
Bizkaia etorbidea, 10 (ERMUA)
943-174925 iranercb@gmail.com 666918745

SUA
SUKALDE ALTZARIAK
AROZTEGIA
Iparragirre Anaiak
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

ulmar S.L.
metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)


## ELEKTRIZITATEA


943 530 356
688 674 242
669 934 964
electricidad iparelek s.l.
INSTALAZIOAK ETA MANTENIMENDUA
iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko urgentziak
610 532 922


## ERAIKINEN MANTENUA


I.T.E. Inspeccion Tecnica de Edificios
Eraikinen Ikuskapen Teknikoa E.I.T.
info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 30
AJT zihurtasuna s.l.p.
Barrena, 6 - behea ezk.


*HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu...*

# Informazio gehiagorako

## 943 20 67 76

## ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

Arragueta 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98

Rosario 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

## GARBIKETAK

**Limpieza Multiservicio Eibar**

Superfizie mota guztietako **garbiketa** eta **mantenimendu** zerbitzua

Tfnoa. **943 031 082**

Mobila **688 609 171**

**www.multiservicioseibar.com** **Barrena, 21**-1.F

**TREJO GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557

Faxa: 943-752556

16 Postakutxatila - Soraluze

*Garbiketa eta mantenimendua*

## IGELTSEROAK

Eraikuntza

Erreformak

Igeltseritza

irazabal

Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra... aldatzen laguntzen dizugu etorkizun hobeaz goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia

Tfnoa. 943-120108

www.irazabal.net

## ITURGINTZA

K21

**MUGICA**

ITURGINTZA

Aire Egokitua, Iturgintza, Gas instalazioa, kalefakzioa, petrolio-produktuak, bainuen erreformak eta abar...

**HANSGROHE** kanilen banatzailea

Zoru erradiatzailea

Eguzki-energia

**Egigurentarren, 18**

Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**

TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com

eta faxa: 943 203 903

**ERAKUSKETA** Arikitxaneko Zubian

## PINTURAK

DECORACIONES AIXA

José Luis Iriondo

**Tfnoa. eta Faxa. 943 20 05 94**

**T. Etxebarria, 8 - behea**

Pintura orokorra

Margotutako paperak

Zoruen kolokazioa

PVC zoruak

Maketak

Alfonbrak

Kortinak

Etxerakoak

Osagarriak

**baglietto**

PINTOREAK

**Zoru mota guztiak**

**Pinturak**

**Dekorazioa**

Errebal, 21

**Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com**

**MALVAR PINTURAS**

**Sostoa, 16 ac behea**

***Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900***

***Mobila. 656 784 396***

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**

PINTURA OROKORREAN

**BARNE eta KANPOko *dekorazioa eta pintura*, FATXADAK, PINTURA BEREZIAK, ENPAPELATUAK, GOTELÉ...**

***Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-***

***696-565394 / 943-030540***

***victor-fraiz@hotmail.com***

***...deitu 943-206776 telefono zenbakira***

# 120 eibartarrek amaitu zuten Behobia-Donostiaren 51. edizioa

**Azaro batean inoiz izan den egunik beroenetakoan, 26.622 korrikalarik amaitu zuten** aurreko domekan Behobia-Donostia maratoi erdiaren 51. edizioa. Helmugara 120 eibartar iritsi ziren, euretatik 23 emakumezkoak: gure herriko onenak Pello Osoro (27.a sailkapen absolutoan) eta Aitziber Urkiola izan ziren. Probaren irabazlea Carles Castillejo kataluniarra izan zen (1:01:12) eta emakumezkoetan Extremadurako Raquel Gomez (1:13:38). Bestalde, 31 urteko korrikalari nafar bat hil zen lasterketan bihotz-biriketako geldialdia izan ostean. Horrez gain, Behobia Gazteko probari dagokionez, Jone eta Naia Saez ahizpak euren mailetako hiru onenen artean izan ziren: Naiak 2. postua eskuratu zuen kadeteetan eta Jonek 3.a juniorretan.
**Hona hemen jarraian eibartarren sailkapena eta proban egindako denbora:**




*Behobia Gazteko podiumak, Jone eta Naia Saez eibartarrekin.*

| | | |
|---|---|---|
| 27 | Pello Osoro | 1:09:50 |
| 751 | Javi Varona | 1:22:41 |
| 814 | Eduardo Talan | 1:23:05 |
| 1.201 | Haritz Uria | 1:25:08 |
| 1.370 | Jon Zubia | 1:25:57 |
| 1.389 | Jon Ilarramendi | 1:26:00 |
| 1.398 | Alvaro Caro | 1:26:02 |
| 1.439 | Alex Gonzalez | 1:26:12 |
| 1.521 | Aitor Oiarzabal | 1:26:38 |
| 1.729 | Aitziber Urkiola | 1:27:25 |
| 2.007 | Jonatan Alustiza | 1:28:28 |
| 2.060 | Andoni Mayo | 1:28:40 |
| 2.372 | Aitor Bolinaga | 1:29:41 |
| 2.557 | Jon Ibarrondo | 1:30:15 |
| 2.642 | Pello Berrizbeitia | 1:30:33 |
| 2.893 | Igor Gomez | 1:31:23 |
| 2.937 | Fernando Molpeceres | 1:31:30 |
| 3.271 | Liher Prieto | 1:32:27 |
| 3.340 | Eduardo Uribe | 1:32:38 |
| 3.361 | Miren Gallastegi | 1:32:40 |
| 3.605 | Gorka Gallastegi | 1:33:19 |
| 3.757 | Juanjo Romero | 1:33:42 |
| 4.680 | Enrique Salgado | 1:35:58 |
| 5.120 | Ane Ziaran | 1:36:55 |
| 5.160 | Juan Carlos Adot | 1:37:02 |
| 5.489 | Kepa Osoro | 1:37:42 |
| 5.502 | Alexander Telleria | 1:37:43 |
| 6.825 | Jokin Martinez | 1:40:18 |
| 6.861 | Aitor Zubizarreta | 1:40:21 |
| 6.919 | Ion Zubiate | 1:40:30 |
| 7.021 | Iban Tueros | 1:40:41 |
| 7.204 | Fidel Gonzalez | 1:40:58 |
| 7.566 | Mikel Lizarralde | 1:41:40 |
| 7.678 | Kristina Lopez | 1:41:54 |
| 7.848 | Jaime Mendiguren | 1:42:13 |
| 7.920 | Iñigo Rodriguez | 1:42:22 |
| 8.044 | Esther Paguey | 1:42:36 |
| 8.412 | Bittor Lucena | 1:43:20 |
| 8.629 | Bittor Ugarteburu | 1:43:42 |
| 8.740 | Ibon Ramirez | 1:43:54 |
| 8.958 | Iñaki Bastida | 1:44:18 |
| 8.993 | Aitor Rodríguez | 1:44:22 |
| 9.174 | Eneko Azurmendi | 1:44:40 |
| 9.492 | Asier Arana | 1:45:09 |
| 10.092 | Iñigo Argoitia | 1:46:11 |
| 10.149 | Pablo Lucena | 1:46:17 |
| 10.401 | Iker Aristondo | 1:46:42 |
| 10.412 | Martin Irigoien | 1:46:43 |
| 10.542 | Ibai Lazkano | 1:46:56 |
| 10.578 | Ander Gutierrez | 1:46:59 |
| 10.593 | Josu Torrealday | 1:47:01 |
| 10.720 | Amaia Abanzabalegi | 1:47:12 |
| 10.722 | Oscar Saez | 1:47:12 |
| 10.858 | Jon Etxabe | 1:47:26 |
| 10.863 | Ernesto Etxabe | 1:47:26 |
| 11.013 | Asier Silva | 1:47:41 |
| 11.377 | Cristina Carrasco | 1:48:21 |
| 11.388 | Enrique Guruzeta | 1:48:22 |
| 11.448 | Igor Guenaga | 1:48:28 |
| 14.009 | Izaskun Aizpiri | 1:52:57 |
| 14.026 | Borja Gutierrez | 1:52:59 |
| 14.071 | Jon Iturbe | 1:53:04 |
| 14.230 | Aitor Muguruza | 1:53:21 |
| 14.535 | Oscar Cabarcos | 1:53:51 |
| 14.956 | Gorka Artamendi | 1:54:35 |
| 15.187 | Idoia Izagirre | 1:55:01 |
| 15.524 | Xabier Perez | 1:55:38 |
| 15.640 | Carlos Balseiro | 1:55:52 |
| 16.121 | Lourdes Iriarte | 1:56:44 |
| 16.562 | Oskar Alberdi | 1:57:32 |
| 16.565 | Daniel Iglesias | 1:57:32 |
| 16.570 | Ibon Arizaga | 1:57:32 |
| 16.800 | Ander Egurrola | 1:57:54 |
| 16.849 | Jokin Alberdi | 1:58:00 |
| 17.030 | Eneko Urain | 1:58:21 |
| 17.160 | Humberto Sarasua | 1:58:37 |
| 17.205 | Kristina Leturia | 1:58:42 |
| 17.207 | Josu Trebiño | 1:58:42 |
| 17.376 | Juan Zubiaurre | 1:59:02 |
| 17.465 | Ander Berrizbeitia | 1:59:12 |
| 17.498 | Eneko Eizagirre | 1:59:16 |
| 17.651 | Enrique Agirrebeña | 1:59:30 |
| 17.740 | Adrian Galan | 1:59:40 |
| 17.956 | Carmen Artamendi | 2:00:04 |
| 18.485 | Pedro Gomez | 2:01:07 |
| 18.507 | Jorge Saenz | 2:01:10 |
| 18.561 | Agus Azpiri | 2:01:17 |
| 18.696 | Josu Zinkunegi | 2:01:33 |
| 19.099 | Victor Calderon | 2:02:23 |
| 19.107 | Victor Perez | 2:02:24 |
| 19.117 | Ainhoa Argoitia | 2:02:24 |
| 19.119 | Ander Retana | 2:02:24 |
| 19.805 | Paul Unamuno | 2:03:51 |
| 20.211 | Jon Urisabel | 2:04:50 |
| 21.317 | Asier Alberdi | 2:07:23 |
| 21.591 | Eduardo Alvarez | 2:08:04 |
| 21.992 | Jon Mardaras | 2:09:03 |
| 21.993 | Aitor Bengoetxea | 2:09:03 |
| 22.015 | Iñaki Sologaistua | 2:09:06 |
| 22.024 | Amaia Rodriguez | 2:09:07 |
| 22.046 | Maider Otaola | 2:09:09 |
| 22.060 | Patxi Arregi | 2:09:12 |
| 22.067 | Ane Ros | 2:09:12 |
| 22.104 | Jon Arosa | 2:09:19 |
| 22.412 | Cristina Bermudez | 2:10:17 |
| 22.483 | Jorge Perez | 2:10:32 |
| 22.528 | Ander Trebiño | 2:10:42 |
| 22.540 | Ane Azkue | 2:10:43 |
| 22.821 | Juan Galarza | 2:11:33 |
| 22.853 | Nerea Ziaran | 2:11:39 |
| 23.172 | Urko Larrañaga | 2:12:44 |
| 24.229 | Miguel Fernandez | 2:17:16 |
| 24.533 | Jesus Gutierrez | 2:18:52 |
| 24.846 | Nerea Telleria | 2:20:46 |
| 24.847 | Josu Hernando | 2:20:46 |
| 24.917 | Miren Lekunberri | 2:21:07 |
| 25.143 | Alberto Kortazar | 2:22:32 |
| 25146 | Adrian Laspiur | 2:22:32 |
| 26.038 | Irene Zubizarreta | 2:32:40 |
| 26.039 | Fernando Arregi | 2:32:41 |

# Errugbia hezkuntza zentroetan zabaltzen

**Avia Eibar Rugby Taldeak, kirolaren proiekzioaren alde hainbat arlotan jorratzen duen ekimenen artean,** proiektu berri bat ipini du martxan: Get Into Rugby izenekoa, hezkuntza zentroetan jarri dute praktikan. Irailean eta urrian IES Ermuan hasi eta I. Zuloaga Institutoan izan dira gero, orain Itzion lanean jarraitzeko; hurrengo hilabeteetan bestelako institutoetan ere egiteko asmoa dute.



Bestalde, senior taldeak 14-31 galdu zuen Bera-Berarekin azken jardunaldian, azken partiduetako martxa ona baztertuz. Pello Urkidiren mutilek C.R. Salvador B hartuko dute bihar Unben, 16.00etatik aurrera. Harrobiko taldeek, bestalde, maila onean jardun zuten: 16 urtetik beherakoen taldeak (Arrasaterekin batera osatutakoa) neurketa ederra jokatu zuen Gernikaren zelaian eta bizkaitarrek sei entsegu lortu zituzten, eibartarrak hirurekin geratzen ziren bitartean; 14 urtetik beherakoen mailan Gaztedi izan zuten aurkari eibartarrek Unben, neurketa polita eskainiz; eta 12 urtetik beherakoek Gipuzkoako kontzentrazioa izan zuten Unben, hirugarren denbora eta guztiz.

## Asteburu oparoa izan zuten Eibar eskubaloiko taldeek

**Somos Eibar talde nagusiak, lan handiak egin behar izan bazituen ere, 28-25 irabazi zion Barakaldori** eta sailkapenean laugarren postuan jarraitzen du. Bizkaitarrek ondo erakutsi zuten Zilarrezko Mailatik jaitsi berriak direla eta taldean badituztela epaileen mugak probatzen iaioak diren jokalariak; gogortasun horrek balio izan zuen ere, modu berean, eibartarren pazientzia neurtzeko. Atsedenaldira 12-11 erretiratu eta gero, bigarren zatia hobeto menperatu zuten Fernando Fernandezen mutilek. Harrobiko talde gehienek ere garaile irten zuten euren partiduetan: Haritzak 32-33 irabazi zion Leitzarani Aitor Cruzek azken segundoan sartutako gol bati esker, IK4-Tekniker jubenilen taldeak lider zegoen Zarautz menperatu zuen 29-25 Iñaki Perales atezainaren lan ikusgarriarekin, Eslaban kadeteen taldeak 23-21 irabazi zion Egiari eta, nesketan, Urnieta menperatu zuten (jubenilek 23-21 eta kadete A taldeak 19-12, azken honek Gipuzkoako txapelketako azken faseko lehen partiduan).



## San Andres Gimnasia Torneoa jokatuko da bihar

**Ohikoa denez, egun osoko jardunaldia izango du bihar Ipuruak hartuko duen torneoaren 17. edizioak.** Goiz eta arratsaldeko saioetan jokatuko da torneoa: federatu absolutoek goizean lehiatuko dute eta oinarri mailakoek jardungo dute gero. Guztira 21 klub izango dira parte hartzen eta, emakumezkoez gain, jendeak hiru mutilen maila handiko lanak ikusi ahal izango ditu.

Bestalde, aurreko asteburuan jokatutako Euskalgym txapelketan bikain jardun zuten berriro ere kadete eta alebin mailetako Ipuruako ordezkariek. Kadeteak bigarren geratu ziren 30 kluben artean, gehienak hilaren 20etik aurrera Espainiako txapelketan izango direnak. Bost pelotekin moldatutako zailtasun handiko ariketa eskaini zuten Varela, Sudupe, Arguiz, Txurruka eta Aranbarrik. Alebinek ere maila ona erakutsi zuten eta seigarren sailkatu ziren 24ren artean.

## Gipuzkoako bakarkako txapelketaren azken jardunaldia xakean



**Klub Deportiboko xakelariek bihar jokatuko dute txapelketa horretako zazpigarren eta azken jardunaldia.** Azken asteotan jokatutako partiden ondoren, maila nagusian Julen Garro 3'5 punturekin aurkeztuko da Donostiako azken jardunaldira, Ion Esturo 3 punturekin eta Jon Arana 2 eta erdirekin. 3. mailako txapelketan Jose Antonio Garrido izan da Klub Deportiboko ordezkari bakarra eta hau 3'5 punturekin heldu da biharkora.

Bestalde, hilaren 21erako "Xake Fibrosi Kistikoari" ekitaldia antolatu dute Untzagan Arnarasa Fibrosi Kistikoaren Elkarteak eta Klub Deportiboak elkarlanean. Jardunaldi horretan Santi Gonzalez Euskadiko txapeldunak aldibereko xake partidak jokatuko ditu hurbilduko diren guztien aurka.

## Nekane Muguruza Bangkok-eko Mundialera



**Domekan joango da eibartarra, Manu Agirre entrenatzailearekin batera,** Bangkok-era jiu jitsu eta ne waza munduko txapelketan parte hartzera. Ez dute baztertzen domina bat lortzea Muguruzak azken torneo guztiak irabazi dituelako.


# IDOIA URIGUEN OSA

*"Hilezkor izan nahi duzu eta hilezkor zara hilezkor bihotz guztietan bihotzean..."*

ANA MARI, AGURTZANE, GARBIÑE, ITZIAR, ROMANI ETA RAKEL
(KAFEKO LAGUNAK)





*Azaroaren 17an "Beldurrak jai gurekin! Ekin autodefentsa feministari!" liburuaren inguruko hitzaldia emango du Idoia Arraizak …eta kitto! Euskara Elkartean 19:00etan. Liburua Euskal Herriko Bilgune Feministak eta Emagin Elkarteak 2013.urtean idatzitakoa da eta arlo teorikoaz gain, praktika ere lantzeko aukera ematen du.*

## IDOIA ARRAIZA (Bilgune Feminista)

# "Autodefentsa emakume moduan bizi ahal izateko tresna da"

***- Zer da eraso sexista bat?***

Bereziki emakume izateagatik jasaten ditugun ekintza edo jarrera diskriminatzaileak dira, baina baita feminitate eta maskulinitate eredu hegemonikoetatik ateratzen diren gorputzek jasaten dituztenak ere. Eraso kolpe bat edo ipurdia ukitzea, txiste bat, txantaje bat, begirada edo isilune bat izan daiteke, eta eraso horien helburuak iraintzea, mespretxatzea, barregarri uztea, kontrolatzea edo mintzea izan daitezke. Kontutan hartu behar dugu, eraso edo indarkeria zuzenez gain, indarkeria egiturazkoa eta sinbolikoa ere badaudela eta esparru guztietan ematen direla.

***- Nola azalduko zenuke zer den autodefentsa feminista?***

Emakume moduan bizi ahal izateko tresna da, bizi-jarrera bat. Indarkeria sexista gure egunerokotasunean jasaten dugula kontutan hartuta, erremintak behar ditugu horri aurre egiteko. Emakume bezala sozializatuak izaterakoan, rol eta gaitasun batzuk garatu ditugu, baina beste batzuk ez eta, autodefentsa feministaren bitartez, ezabatuak izan ditugun gaitasun horiek garatzen ditugu. Gorputza gure tresna nagusia izanda, jarreraren lanketa ezinbestekoa da, eta horrekin batera emozioen eta autoestimuaren lanketa. Jendartean naturalizatuak eta normalizatuak dauden erasoak identifikatzen ikasten dugu autodefentsa feministaren bidez eta horien aurrean erantzun bat emateko norbanako eta kolektiboki garatzeko estrategiak ere bai, noski.

***- Zein eduki aurki ditzakegu "Beldurrak jai gurekin! Ekin autodefentsa feministari!" liburuan?***

Liburuaren hasiera teorikoa da, indarkeria sexista zer den definitzen du eta autodefentsa feministaren zergatia. Bigarren zatian autoestimu eta emozioen inguruan sakontzen da; erlaxazio ariketa praktikoak eta norberaren hausnarketarako ariketak proposatzen dira. Azken atalak "hamaika eraso, hamabi erantzun" izenburua du eta hor erantzuteko gaitasun eta legitimitatearen inguruan hitz egiten da, autodefentsa feministaren aldarrikapena eta praktikak erakutsiz. Bereziki neska gazteengan pentsatuz idatzi genuen liburua. Euren errealitatea kontutan hartuta, mezu asko bigarren pertsonan daude idatzita, haiengana modu zuzenean iristeko. Gainera, material hau euskaraz plazaratzeari ere garrantzia handia eman diogu.



# "Little Jem" antzezlana gaur iluntzean

**Gaur 20:30ean "Little Jem" antzezlana hartuko du Coliseoak,** EME2 Producciones-en eskutik. Rocio Gonzalez, Mercedes Castro eta Elina Luaces antzezleak protagonista dituen lana Elaine Murphyk idatzitako testuan oinarritzen da eta "maitasuna, sexua, bizitza, heriotza eta saltsa klasea" batzen dituen istorioa kontatzen du, hiru belaunaldi ezberdinetako emakumeen bitartez. Sarrerak 12 euro balio du.



# Esther Galarzaren erakusketa

**Aurreko barixakuaz geroztik Esther Galarzaren "Udazkena" izenburuko erakusketa** dago ikusgai Bergarako Nahikari Kafetegian. Artista eibartarrak bere lanik berrienekin osatu duen erakusketan zeramika-piezak eta akuarelak, biak batu ditu eta nahi duenak azaroaren 30era arte izango du bisitatzeko aukera, taberna zabaltzeko ordutegian.



# Musika eskolakoen kalejira

**Azaroaren 22an Santa Zezilia musikarien zaindariaren eguna dela-eta,** Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleek bere omenezko kalejira egingo dute datorren eguaztenean (azaroaren 18an), 17:00etan, Portaletik abiatu eta Untzagaraino, handik Fermin Calbeton kalea zeharkatuta Musika Eskolara buelta egiteko. Amaieran, parte hartu duten ikasleei txokolatea emango diete.

# BOJ enpresari buruzko erakusketa



**BOJ Olañeta SL enpresa eibartarra sortu zela 110 urte bete dira eta, horren aitzakiarekin,** "1905 BOJ 2015" erakusketa prestatu dute Armagintzaren Museoan (Portaleko 5. solairuan). Atzo zabaldu zuten erakusketan 110 urte hauetan egindako lanak ipini dituzte ikusgai, *"lantegiaren hastepenetatik hasi -dominen estanpatua, plaka esmaltatuak, sarrailak, giltzarrapoak- eta enpresa ezagunago egin duten bestelako produktuekin jarraituta -latak irekitzekoak edota kortxoa ateratzekoak-"*. Hilaren 29ra arte martxan egongo den erakusketarekin enpresa sortu zuten Manuel Barrenetxea, Bernardo Olañeta eta Vicente Juaristi omendu nahi dituzte bide batez. Sarrera librea izango da museoko ohiko ordutegian, eguaztenetik zapatura 16:00etatik 20:00etara eta domeketan 10:00etatik 13:00etara.

# Ondra-jana eta kalejira Gaztañerre ospatzeko



**Astelehenean ospatuko da Gaztaiñerre eguna gurean eta, azken urteotako martxari** jarraituta, aurten ere AEK Euskaltegikoek ondra-jana eta kalejira antolatu dituzte horren harira: 19:00etan euskaltegi parean dagoen Paloma tabernan elkartuko dira, *"hildakoen omenezko ondra-jana"* egin eta, jarraian, Musika Eskolako trikitilari taldearekin eta Eibarko Kantuzaleak abesbatzarekin batera kalejiran ibiltzeko: *"Palomatik Beleko eta Hirurok tabernetara joango gara. Euskal kantak eta Gaztaiñerre egunerako jarritako koplak kantatuko ditugu eta jende guztia gonbidatu nahi dugu Gaztaiñerre eguna gurekin batera ospatzera"*.

## laburrak

### LABURMETRAI SARIAK

**Bihar arratsaldean, 19:30ean egingo da Asier Errasti Eibarko 16. Film Laburren Jaialdiko irabazleei Javier Agirresarobe sariak banatzeko ekitaldia Portalean. Aste osoan finalisten eta beste hainbaten lanen proiekzioak eskaini eta gero, aurtengo irabazleak zeintzuk diren biharko ekitaldian emango dute ezagutzera.**



### TXISTU ETA ORGANOA

**Bihar 20:00etan txistu eta organo kontzertua eskainiko dute Gorka Zabaletak eta Fernando Gonzalok, San Andres elizan.**





Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Eibarren berriro ere, orain "Amalur" LAN BERRIArekin

abenduak 12 ZAPATUA 16.30 eta 19.00

abenduak 13 DOMEKA 16.00 eta 18.30

Irailaren 30erako kuota eguneratuta duten
BAZKIDEENTZAKO AURRE-SALMENTA
azaroaren 16tik 27ra (7'50 euro)
...eta kitto!-n salgai:
bazkide bakoitzak 3 sarrera gehienez
ORDUTEGIA: 10.00-14.00 eta 16.00-19.30

GAINONTZEKOAK
azaroaren 28tik aurrera (8'00 euro)
El Tío Palancas (Juan Gisasola), Eneritz argazkidenda (Urkizu) eta Gozoki (Bidebarrieta eta Sostoatarren)

# Dastatzeko moduko kultura




**Arrate Kultur Elkarteak, udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak lagunduta,** Eibarko tabernarien arteko San Andres Saria XII. Pintxo Lehiaketa antolatu du azaroaren 17 eta 18rako. Aurtengo edizioan 31 tabernak hartuko dute parte, bakoitzak lehiaketarako bereziki prestatutako pintxoa aurkeztuta: Aterpe, Kultu, Birjiñape, Depor, Zazpi, Koskor, Slow, Akara, Batzoki, Cepa, Arkupe, Paulaner Bierhaus, Ongi Etorri, Astelena, Boulevard Degustacion, Makala, Jan Ta Edan, Ipur sagardotegia, Kontent, Sutondo, Ambigu, Bossa, Trinkete, Zubi Gain, Amesti, Suberoa, Foxtter, Hirurok, Beleko, Afrikan Haritza eta Iturri. Diptikoa egitean izandako akatsagatik zerrendan ez da **Txoko** agertzen, baina taberna horrek ere hartuko du parte lehiaketan.

Horrekin batera, azaroaren 26an ogi dastaketa egingo da Juantxo Aranbururekin, 19:00etan Arrate Kultur Elkartean. Parte hartu nahi duenak aldez aurretik izena eman beharko du, 943202299 telefonora deituta, arratekultu@gmail.com helbidera idatzita edo zuzenean bulegora joanda (astelehenetan 09:30-etik 11:30era, martitzen eta eguaztenetan 17:00etatik 19:00etara eta eguenetan 11:30etik 13:30era).

# Bertso-paper lehiaketako irabazleak aukeratu dituzte

**Eguaztenean eman zituzten ezagutzera aurtengo San Andres Bertso Paper-lehiaketako irabazleak:** hamasei urtetik gorakoetan, lehen saria, Eli Pagolak irabazi du (300 euro eta txapela) eta bigarrena, berriz, Errenteriako Iñigo Legorburuk (250 euro eta plaka). Hamasei urtetik beherakoen artean, La Salle ikastetxeko Ainhoa Bizkarrak eraman du lehenengo saria (txapela eta liburua), eta bigarrena, berriz, Mogel Isasi ikastetxeko Peru Alberdik (plaka eta liburua). Irabazleek …eta kitto! Euskara Elkarteak, azaroaren 20rako, barixakua, antolatu duen San Andres Bertso Jaialdian jasoko dute saria, arratsaldeko 18.30etik aurrera, eta jaialdia 19:00ak aldera hasiko da. Puntako laukotea izango da taula gainean: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi eta Sustrai Colinak jardungo dute, Jon Mikel Mugika gai-jartzailearen esanetara. Sarrerak Sagar Bitza, Kultu eta Depor tabernetan daude salgai, 6 eurotan.


*Eli Pagola*


*Iñigo Legorburu*



# Guraso berbalagunak patinatzera

**Donostiako Txuri Urdinera joango dira, izotz gainean patinatzera, Gurasoak Berbetan egitasmoan** parte hartzen diharduten guraso berbalagunak, euren seme-alabak lagunduta. Azaroaren 21ean, zapatua, egingo dute irteera, eta bertan pasatuko dute arratsaldea. Gurasoak Berbetan ekimenak guraso euskaldun eta euskaldun berriak elkartzen ditu, euskera praktikatzeko. Talde naturalak ere sortu dira aurten, hau da, lehendik eginda zeuden lagun-taldeak dira, eta euren ohiturak aldatu gabe, tarte batean behintzat, euskeraz jarduteko konpromisoa hartu dute. Horrez gainera, urtean zehar, hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera ere izaten dute; horren adibidea da Txuri Urdinera egingo duten irteera.

Izadi
LORADENDA
– Lora eta landare natural eta lehorrak
– Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelerara,
gazteleratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.
ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Zorionak, ANA MARI, gaur urtiak betetzen dozuz-eta. Laztan haundi bat eta ondo pasau, seme-alaba eta billobaren partez.



Zorionak, IRUNE, astelehenian bederatzi urte beteko dozuz-eta. Jarraittu oiñ arte bezain alai eta jator. Zure etxekuen partez.



Zorionak, MIREN, etxeko printzesa!!, hillaren 8xan hiru urte egin zenduazen-eta. Famelixaren eta, batez be, Malenen partez.



Zorionak, ANDER, astelehenian bost urte egin zenduazelako. Famelixa guztiaren eta, batez be, Juleren partez.



Zorionak, IRENE, gure printzesa, gaur hiru urte egitten dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, printzesa!!, hillaren 18xan zazpi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat gure txapeldunarentzat, Ander eta gurasuen partez.



Zorionak, ANNEKE!!!, hillaren 10ian zortzi urte bete zenduazen-eta. Muxu haundixa aitatxo eta amatxoren partez.



Zorionak, NORA! Azaruaren 10 hartatik bost urte pasa dira eta famelixakuak pozez zoratzen patxo potoloz josi nahi zaittue.



Zorionak, MAIALEN!, domekan gure etxeko sorgintxuak hiru urte egingo dittu-eta! Patxo potolo bat danon partez.



Zorionak, IZARO, hillaren 11n urtiak egin zenduazen-eta. 7 muxu pottolo famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANDER, domekan sei urte egingo dozuzelako. Ondo pasa, etxekuen eta, batez be, Josu eta Liherren partez.



Zorionak, PAULE, gure etxeko marimatrakak gaur hiru urtetxo egitten dittu-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, JOSU!, atzo bi urtetxo bete zenduazen-eta. Patxo potolo-potoluak zure famelixaren partez.



Zorionak, DANEL, atzo bost urte egin zenduazen-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, GANIX, astelehenian bederatzi urte bete zenduazen-eta. Etxekuen partez.





Zorionak,JON eta IRATI, gaur lau urte betetzen dozuez-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.

Zorionak, OIHAN (hillaren 9xan) eta EKHI (12xan), bost urte egin dozuez-eta. Patxote haundi bana, txapeldunak, famelixako danon eta, batez be, Irati eta Maddiren partez.



## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**
**14an: 19.45, 22.30**
**15ean: 20.00**
**16an: 20.30**

### "Deuda de honor"

*Zuzendaria:* **Tommy Lee Jones**




**(2 ARETOAN)**
**14an: 19.45, 22.30**
**15ean: 17.00, 20.00**
**16an: 20.30**

### "Un otoño sin Berlín"

*Zuzendaria:* **Lara Izagirre**




**(ANTZOKIAN)** (1 aretoan)
**14an: 17.00 (1), 19.45, 22.30**
**15ean: 17.00 (1), 20.00**
**16an: 20.30**

### "Truman"

*Zuzendaria:* **Cesc Gay**




**(2 ARETOAN)**
**14an: 17.00**

### "Los miércoles no existen"

*Zuzendaria:* **Peris Romano**






**(ANTZOKIAN)**
**14an: 17.00**
**15ean: 17.00**

### "Hotel Transilvania 2"

*Zuzendaria:* **Genndy Tartakovsky**

## BARIXAKUA 13

### GAZTELEKUA
**16.30.** Eskulanak. Indianokuan.

### MODA DESFILEA
**18.00.** Jubilatuen desfilea eta Voces y Cuerdas-en emanaldia. Untzagako jubilatuen etxean.

### BILERA
**19.00.** Sanandresak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Kultun.

### ANTZERKIA
**20.30.** "Little Jem" antzezlana, EME2 Producciones-en eskutik. 12 euro. Coliseoan.

## ZAPATUA 14

### HITZALDIA
**11.00.** *"Nutrición evolutiva"*. Hizlaria: Mª Belen Tirado (Nutrizio eta Dietetikan diplomatua). Doan. Kenko osasun gunean (Estaziño, 8).

### JAIALDIA
**14.00.** Kulturanitz jaialdia: jatekoa, inmigrazioaren mapa, kontzertuak, perkusio tailerra (Maroko), Moredanako kalejira (Bolivia), Codigo Habana (Kuba)... Untzagan.

### GAZTELEKUA
**17.00.** Eskulanak. Indianokuan.

### KIROLA FAMILIAN
**17.30.** 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian.

### ASIER ERRASTI JAIALDIA
**19.30.** 16. Film Laburren Jaialdiko sariak banatzeko ekitaldia. Portalean.

### KONTZERTUA
**20.00.** Txistu eta organo kontzertua, Gorka Zabaleta eta Fernando Gonzaloren eskutik. San Andres parrokian.

### KONTZERTUA
**23.00.** ZZTorpes taldearen kontzertua. Ipur sagardotegian.

## DOMEKA 15

### GAZTELEKUA
**17.00.** Play/Wii. Indianokuan.

### KIROLA FAMILIAN
**17.30.** 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian.

## ASTELEHENA 16

### IKASTEN
**10.00.** Teknoforum. Untzagako jubilatu etxean.

### IKASTAROA
**14.30.** Dendariak Berbetan-eko kideentzat opari-pakete bereziak egiteko. …eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11).

### GAZTAÑERRE
**19.00.** Paloma tabernan batzea. Hildakoen omenezko ondra-jana eta, ostean, kalejira Musika Eskolako trikitilari taldea eta Eibarko Kantuzaleak abesbatzarekin batera (Palomatik Beleko eta Hirurok tabernetara). AEK euskaltegiak antolatuta.

## MARTITZENA 17

### IKASTEN
**10.00.** Hitzaldia: *"Zinemaren hizkuntza (2)"*, Pedro Saldañaren eskutik. Armeria Eskolan.

### IKASTEN
**16.00.** Punto tailerra.
**17.00.** Joskintza tailerraren lehen txanda (2. txanda 18:30etik aurrera). Portalean.

### GURASOAK MARTXAN
**18.30.** "Eskumen emozionalak" saioa. Portalean.

### HITZALDIA
**19.00.** *"Beldurrak jai gurekin. Ekin autodefentsa feministari!"* liburuaren inguruan, Idoia Arraizaren eskutik. …eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11).

## EGUAZTENA 18

### IKASTEN
**08.15.** Mendi ibilaldia, Artikutzara. Bazkaria eraman. Irteera: Ego Gain.

### MAHAINGURUA
**18.00.** *"La integración de las segundas generaciones"*, Karima Jebariren eskutik. Al Toyor Elkartean (Estaziño kalean).

### BERDINTASUN GUNEA
**18.00.** XII. Berdintasun-erako gunea, Mujeres al Cuadrado elkartearen eskutik. Sarrera librea (inskripzio barik). Portalean.

### EIBARKO KANTUZALEAK
**19.00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

## EGUENA 19

### JARDUNALDIA
**09.00.** Ekinguneren eta DEE-AEDren "networking" saioa. Armagintzaren Museoan (Portalean).

### IKASTEN
**10.00.** Hitzaldia: *"Islameko teologia"*, Koldo Ortega irakaslearen eskutik. Armeria Eskolan.

### BATZARRA
**10.00.** LAB sindikatuko eskualdeko industriako delegatuen batzarra. Arrate Kultur Elkartean.
**12.30.** Mobilizazioa, *"Adegi lapurrak! Eskubideak guztiontzat! Hitzarmen duinak orain"* goiburuari jarraituta. Untzagan.

### MAHAINGURUA
**18.00.** *"Asilo, refugio y crisis en Europa"*, SOS Arrazakeriako Agustin Unzurrunzagaren eskutik. Portalean.

### WOMAN IN BLACK
**18.00.** Woman In Black performancea. Untzagan (harmailen aldean).

### KALEETAN KANTUZ
**19.30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### MIKRO-ANTZERKIA
**21.30.** *"Yo lo dejo"* lana, Amagoia Lauzirikaren eskutik eta Eneko Olasagastik zuzenduta. Sutondo kafetegian (Isasi, 31).

## 26. San Martin Azoka ERMUA (ZAPATUA 14)

**10.00/12.30:** Euskal musika-tresnen erakusketa
**11.00:** Azoka / **12.00:** Jantzi lehiaketa
**12.30:** Euskal dantzak / **13.00:** Herri-kirolak
**13.30:** Sari banaketa / **15.30:** Babajana
**18.00:** Erromeria Luhartz-ekin eta pilota partidua
**19.00:** Kalejira
**19.30:** Errifa zozketa eta Larraindantza

## 20. Gaztañerre Azoka SORALUZE (ZAPATUA 14)

**09.00:** Azoka
**10.00:** Umeendako jolasak
**11.00:** Kalejira, herri-kirolak eta zukuak
**12.30:** Bertsolariak, dantza eta sari-banaketa
**15.00:** Herri-babajana
**19.00:** Erromeria
**22.30:** Erromeria Fun&Go!-rekin

# erakusketak

## ✔ Azaroaren 15era arte

***INDALEZIO OJANGUREN XXVIII.*** *argazki lehiaketan saritutako lanen eta beste hainbaten erakusketa. Portalean.*

*“**POLITIKO-POETICO 5**” proiektuaren erakusketa. Portalean.*

***ARRATE KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN II. ARTELAN ERAKUSKETA**. Portalean.*

## ✔ Azaroaren 29ra arte

*“**1905 BOJ 2015**” erakusketa. Armagintzaren Museoan.*

## ✔ Azaroaren 30era arte

***IÑAKI CAMPOSEN** argazki erakusketa. Portalea tabernan.*

*“**CLUB FOTOGRAFICO 76**” argazki erakusketa. Deportiboan.*

***OSKAR BAGLIETTOREN** “Instantes en la montaña” argazki erakusketa. El Ambigu tabernan.*

***MUNDUKO PAISAIAK - LIBURUTEGIAK TOPALEKU** “Kulturaniztasuna”. Juan San Martin liburutegian.*

# ikastaroak

## ✔ Zumba ikastaroa

**Noiz eta non:** Astelehen eta eguenetan (18.00-19.00), Oihane Sarasketaren eskutik. Arrate Kultur Elkartean.
**Izen-ematea:** arratekultu@gmail.com / 943202299 / bulego orduetan (30 euro bazkideek, 35 euro bazkide ez direnek).

## ✔ Zeinu hizkuntza ikasten hasteko ikastaroa

**Noiz eta non:** Urtarriletik aurrera, eguaztenetan (19.00-21.00). 30 ordu. Bergarako ARANSAGI Gorren Zerbitzuaren egoitzan. **Izen-ematea:** 943762703 (87 euro).

# telefono jakingarriak

| | |
|---|---|
| SOS deiak | 112 |
| Pegora | 010 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 |
| Portalea | 943 70 84 39 |
| Udaltzaingoa | 943 20 15 25 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa | 943 82 01 10 |
| KIUB | 943 20 38 43 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 |
| Iberdrola | 901 20 20 20 |
| Naturgas | 902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Mendaro osp. | 943 03 28 00 |
| Anbulatorioa | 943 03 25 00 |
| Torrekua | 943 03 26 50 |
| Errepideak | 902 11 20 88 |
| Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Eusko Tren | 902 54 32 10 |
| Lurraldebus | 943 00 01 17 |
| Pesa | 900 10 14 00 |
| Taxiak | 943 20 30 71 |
| | 943 20 13 25 |
| Alkohol.Anon. | 629 14 18 74 |
| Al-Anon/Alateen | 650 26 59 63 |

# hildakoak

- **Ireneo Dorado Chantre.** 83 urte. 2015-X-28.
- **Adriana Garcia Carril.** 79 urte. 2015-XI-5.
- **Javier Ugarte Fdez. de Maruri.** 58 urte. 2015-XI-6.
- **Bitxori Gastesi Escudero.** 94 urte. 2015-XI-8.
- **Idoia Uriguen Osa.** 45 urte. 2015-XI-8.
- **Jose Luis Arakistain Iriondo.** 83 urte. 2015-XI-9.
- **Basilia Elkoro Guridi.** 101 urte. 2015-XI-10.

# jaiotakoak

- **Sara Mora Aberrane.** 2015-X-12.
- **Julen Larrañaga Arrate.** 2015-X-29.
- **Ayoub El Maslouhi.** 2015-X-30.
- **Marc Muñoz Quero.** 2015-X-30.
- **Eneko Aranzabal Dorado.** 2015-XI-2.




# SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 7 | | 4 | 3 | 2 | | 8 | |
| | | | 9 | 7 | 8 | | 3 | |
| | | | | | | 9 | | |
| | | | 8 | | | | 1 | 3 |
| 3 | | | | | | | | 5 |
| 8 | 4 | | | | 3 | | | |
| | | 7 | | | | | | |
| | 1 | | 2 | 5 | 4 | | | |
| | 3 | | 7 | 6 | 1 | | 2 | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 7 | 6 | 5 | 8 | 2 | 9 | 4 | 3 |
| 9 | 8 | 4 | 6 | 7 | 3 | 5 | 1 | 2 |
| 5 | 2 | 3 | 1 | 9 | 4 | 8 | 7 | 6 |
| 3 | 9 | 8 | 7 | 5 | 1 | 2 | 6 | 4 |
| 7 | 1 | 2 | 4 | 6 | 8 | 3 | 9 | 5 |
| 6 | 4 | 5 | 2 | 3 | 9 | 1 | 8 | 7 |
| 4 | 5 | 1 | 8 | 2 | 6 | 7 | 3 | 9 |
| 8 | 3 | 7 | 9 | 4 | 5 | 6 | 2 | 1 |
| 2 | 6 | 9 | 3 | 1 | 7 | 4 | 5 | 8 |

AURREKOEN EMAITZA

# farmaziak

## ✔ barixakua 13
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

## ✔ zapatua 14
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

## ✔ domeka 15
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

## ✔ astelehena 16
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

## ✔ martitzena 17
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

## ✔ eguaztena 18
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

## ✔ eguena 19
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

## ✔ barixakua 20
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)

GAUZEZ BETI
**Elorza (J. Gisasola, 18)**

# iragarki laburren tartea

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
- 2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

**4. LANA**
- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak


## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai San Vicente de la Sonsierran (Errioxa). 4 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta ganbara. Tel. 615-759399.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-192408.
– Familia batek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 642-349114.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 697-754174.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Jostun-tailerra traspasatzen da jubilazioagatik. Tresna, bezero eta denda finkoekin. Tel. 645-341395.

### 3.2. Errentan

– Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.
– Garajea alokagai Matsaria inguruan (Azpiri eraikinean). Tel. 696-626593.
– Gazteentzako lokala alokagai Jardiñeta kalean. 132 m$^2$. Berriztua eta legeztatua. Tel. 656-756485.
– Garaje itxia alokagai Abontzan. Tel. 617-688311.
– Lokala alokagai Ubitxa inguruan, kale mailan (irteera zuzena kalera). Bulego edo biltegirako egokia. 70 m$^2$. Tel. 617-688311.
– Garaje-marra alokatzen dut Txomoko parking-ean. 90 euro hilean. isabel.berasategui.flegel@gmail.com

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 09.30etik aurrera. Tel. 646-892162.
– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 603-743240.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 632-389174.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 632-827889.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 631-748977.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 632-454417.
– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 637-102725 eta 943-744033.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 632-384325.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-051309.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritzan edo tailerrean jarduteko. Tel. 602-815492.
– Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 677-736060.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari jarduteko, nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-682398.
– Pedagogoa eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiten laguntzeko. Tel. 677-591982.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko... Tel. 688-820508.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia handia eta erreferentziak. Tel. 631-409528.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Esperientzia. Tel. 639-423493.
– Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanak eta garbiketak egiteko. Baita pegorak garbitzeko ere. Tel. 653-010861.
– Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-192408.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketak egiteko. Tel. 636-882838.
– Emakumea eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko. Tel. 653-735843.
– Neska arduratsua eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 639-611454.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegitan. Tel. 633-808931.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 675-243999.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. Tel. 645-248040.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, etabar. Tel. 663-639241.
– Neska euskalduna (Haur Hezkuntzan diplomatua) eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-715066.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Baita gauez ere. Tel. 688-959575.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 690-134485.
– Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 640-315602.
– Gizona eskaintzen da arratsaldez banaketak egiteko. Gida-baimenarekin. Tel. 693-232959.

### 4.2. Langile bila

– Emakume euskalduna behar da nagusiak zaintzeko (janaria eta etxeko lanak egiteko). Deitu 16.00etatik aurrera. Tel. 629 -460153.
– Sukaldaria behar da pintxoak eta kazuelatxoak prestatzeko. Barran esperientzia izatea baloratuko da. extraeibar2015@gmail.com
– Pertsona behar da goizetan umea Sansaburura eramateko. Tel. 943-203205.
– Kamarera/o behar da eguenetik domekara arte Soraluzeko Ufala Irish Pub tabernan lan egiteko. Tel. 615-750942 eta 943-750030.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak etabarretako klaseak ematen dira. 1 eta 3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.
– Neska eskaintzen da klase partikularrak emateko LH eta DBHko 1. eta 2. mailakoei. Esperientzia. Tel. 637-020260.
– Unibertsitateko neska eskaintzen da klase partikularrak emateko. Esperientzia ulermen arazoak dituzten umeekin. Banaka. Merke. Tel. 625-019711.
– Matematikak, Fisika, Kimika, Lengoaia, Kontabilitatea eta Ekonomia klaseak ematen ditut. DBH, Batxilergoa eta Heziketa zikloak. Tel. 685-739709 eta 943-127365.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak etabarreko klaseak ematen ditut. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– PSP fundarekin eta Play Station 2 (Slim) salgai. Ia erabili gabe. Jolasak opari. Tel. 671-846270.
– Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 943-572057.
– Trio Jane Carrera Aniversario, urdin ilun kolorekoa salgai. Oso egoera onean. 0 taldea, kapazoa eta aulkia. Zaku eta plastikoak barne. 250 euro. Tel. 686-474208.
– 1'50 metroko ohea salgai. Gereziondo-zurez egindakoa eta diseinuzkoa. Ia berria. 500 euro, negoziagarriak. Tel. 635-009554.
– Bi oheko ohe-kabi zuria salgai (0'90x2). Somierrekin, baina koltxoirik gabe. 150 euro, negoziagarriak. Tel. 660-805301.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Urrezko pultsera galdu genuen aurreko asteburuan. Iraia jartzen du bertan. Tel. 646-280237.
– Orain dela 15 egun umearen motorra ahaztu nuen T. Etxebarrian. Urdin eta hori kolorekoa, Hugo jartzen du. Tel. 677-309013.


Girorik onenean
Koskor
Calbeton, 6
14.
urteurrena
ESKERRIK ASKO
AZAROAK 20
ETA OPARIAK


Probatu zure zentzumenak
Probatu zure audifono berriak
30 egunetan
Egokitzapen bermatua
Kontsultatu baldintzak denda honetan.
audiocentro
Igmar
Julian Etxeberría, 2
20600 Eibar
Tel. 943 20 26 99
Audioprotesis goi mailako teknikaria: Antón Martinena
Entzumen-test integralak
Audifono digitalak
Neurrira egindako tapoiak
Konektibitate-soluzioak
Mantentze-tekniko integrala
Neurrira egindako finantziazioa

# Apartamentu baten jabe bazara...

basquestay



# ...alokatu eta diru iturri bilakatu

***– Zer da Basque Stay?*** Etxejabe partikularren apartamentu/pisu/txalet-entzako epe motzeko erreserbak lortzeaz arduratzen den enpresa gara. Gure balio erantsia da check in eta garbiketa/mantenimenduaz ere arduratzen garela. Horri esker, etxejabeak ez dauka ezer egin beharrik, gu arduratzen baikara guztiaz.

***– Etxean arazoren bat suertatuz gero, adibidez, giltzak galdu dituztela bezeroek edo bapatean ur berorik gabe geratu badira, etxejabea arduratu behar da konponketaz?*** Ez!!! Gu arduratzen gara etxe horren inguruan sortzen den guztiaz. Etxejabeak ez du ezer egin beharrik: lehen egunerako etxea garbi eta hutsik laga bakarrik.

***– Eta horrelako arazoen konponketak nork ordaintzen ditu?*** Kasu bakoitza aztertzen da. Adibidez, TV puskatzen bada, altzaritik erori delako, bezeroak ordaintzen du eta badaukagu hori horrela izango dela ziurtatzeko metodoa. Baina bestalde, adibidez, bapatean uraren galdaran matxura badago, etxearen beraren gaia dela ulertzen da eta hori etxejabeak ordaindu behar du, epe luzeko alokairu arruntean gertatzen den bezala. Giltzak galdu baldin badituzte, bezeroak ordaindu behar du, noski.

***– Noiz hasi zineten horretan?*** Basque Stay-ren ideia 2014ko martxoan “jaio” zen, irailean enpresa bezala inskribatu ginen eta lehen etxea 2015eko apirilean ipini genuen alokatzen.

***– Eta zer moduz joan da?*** Lehen etxea iragartzen ipini genuenetik, lehen erreserba sartzera bi ordu bakarrik pasa ziren eta egun horretan bertan sartzeko zen gainera!!! Hortik gaur arte ez gara geratu. Beraz, oso ondo joan dela esan genezake.

***– Zein da zuen aktuazio eremua?*** Momentuz Gipuzkoako kostaldean dauden sei herriko 20 etxerekin gabiltza. Eta, kostaldea esatean, Eibar kostalde bezala ulertzen dugu. Guretzat Debatik urruti dago, baina Houstongo familia batentzat Eibar hondartzaren lehenengo lerroa da!!! Gainera, ez dugu inongo arazorik Lekeitio, Mundaka edo Bilboko etxeekin berdina egiteko.

***– Eta zer kobratzen du Basque Stay-k bere zerbitzuengatik?*** Gu lortutako diru sarreren portzentaia batekin geratzen gara; hau da, ez dugu kantitate finkorik kobratzen. Horrela, guri ere interesatzen zaigu etxeak ongi funtzionatzea, horren arabera kobratuko dugu-eta. Dena dela, badauzkagu kasu batzuk etxearekin ahalik eta diru gehien lortzea helburu ez dutenak, etxearen beraren gastuak ordaintzeko haina egitea baizik. Kasu horietan, prezio altu xamarrak ipintzen zaizkie bezeroei eta, horrela, bezero txandatzea murrizten da. Azken batean, etxea ez da gurea, eta jabeak egitea nahi duena egingo dugu: bere behar edo nahien arabera moldatzen gara.

***– Edozein etxe hartzen duzue edo exigentzia batzuk ipintzen dituzue?*** Edozein etxe ez, baina oraingoz inori ez diogu ezetzik esan: etorri zaizkigun etxejabe denekin iritsi gara akordio batetara. Kasu batzuetan, etxeak erreforma bat behar izan du eta erreforma hori nola finantzatu adostu izan dugu. Eskatzen duguna da guri etxea garbi eta objektu pertsonalik gabe uztea. Hau da: nobelak, paisaien argazkiak eta halakoak **bai**; baina argazki pertsonalak, arropak etabar **ez**.

***– Urte osorako libre izatea exigitzen al duzue?*** Ez. Zalantzarik gabe, Basque Stay-rentzat urte osoan zehar etxea libre izatea da interesgarriena, baina badauzkagu kasu batzuk urtean zehar ikasleei alokatzen zaiela etxea eta uztailean eta abuztuan gure esku geratzen direla. Beste kasu batzuetan etxejabea bera joaten da etxe horretara urteko epe baterako, adibidez abuztu osorako, eta urteko beste 11 hilabeteetan libre geratzen da. Lehen esan bezala, malguak gara eta etxejabearen beharretara egokitzen gara.

basquestay

www.basquestay.com
605 747 756
info@basquestay.com



Beñat Larrañaga eta Iñigo Lazkano